



LH-5. MAILA
2. UNITATE DIDAKTIKOA
"Bizitza Proiektua"



BIZITZA PROIEKTUA-3: AUKERATU, EGIN ETA ALDATU

Idatzi zure izena:



Bizitza proiektua aukeratu eta, poliki-poliki EGITEN JOATEN GARA. Ez da hasieratik guztiz egina dagoen zerbait.

Bizitza proiektua EZ DA INOIZ GUZTIZ EGINA EGOTEN. Ez da bukatzen den zerbait, ez da guztiz lortzen den zerbait. Bizitza osoan zehar egiten goaz. Bizitza proiektua aldatzen goaz.

Hona hemen, **bizitza proiektuan lortu eta bizi ditzakegun EGOERA** batzuk:

NI NEU	1.Umore ona izatea	2.Fisikoki sendoa izatea	3.Lagunen lagun ona izatea
	4.Ausarta izatea	5.Taldean lana egiten jakitea	6.Hizkuntzak ikastea
FAMILIA	7.Etxekoekin planak egitea	8.Giro ona eta alaia izatea	9.Elkar errespetuz tratatzea
	10.Guztiak kontuan hartzea	11.Etxea denon ardura izatea	12.Lagunak etxera etortzea
LANA	13.Gustuko ikasketak egitea	14.Kideekin ondo eramatea	15.Emaitzak hobetzen joatea
	16.Helburuak lortzea	17.Lan interesgarriak egitea	18.Ongi ikusia egotea
GIZARTEA	19.Adiskide asko izatea	20.Kirola egin ahal izatea	21.Festetan parte hartzea
	22.Giza zerbitzuak izatea	23.Garraio publikoa egotea	24.Lagun onak izatea

1. - Idatzi **JADANIK lortu eta bizi** dituzun egoerak (goikoak edo beste batzuk):

NI NEU			
FAMILIA			
LANA			
GIZARTEA			

2. - Idatzi **ETORKIZUNEAN lortu-bizi nahi** dituzun egoerak (goikoak edo beste batzuk):

NI NEU			
FAMILIA			
LANA			
GIZARTEA			

→ Bakoitzak bere bizitza proiektua egiteko eskubidea du.

→ Bakoitzak bere bizitza proiektua aldatzeko eskubidea du.